

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2019ko otsailaren 22a · 403. zenbakia



## "Ingelesa tresna bikaina da"

Mikel Oteiza, Pat Cowie eta Maddi Aldai. Ingelesak batu zituen hiru aiarrekin juntatu gara.

Mada eta osagarriak  
*gandeko gure zaharrei!*

*Garbizio Arrojari*

Merino plaza, 5 - Orio - 635 706 265

egin zaitez laguntzaile

**Karkara**

**ZINKU ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.*

*Ander Zinkomegi*  
**667 740 279**

**LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN**

- 1-ZUZENEAN OTARREAN SARTU PRODUKTUA
- 2-BEHAR BADUZU, ESKATU ETA ERAMAN ETXERA GURE POLTSA BERRERABILGARRIAK
- 3-HURRENGOAN, ETXETIK ELKAR DITZAKEZU POLTSAK

**GOZATEGI**  
FRUTADENDA

**Sagasti LEIHOAK**

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 33 71 90  
sagasti@sagastileihoak.com  
Avenida de Salto, 63  
20810 Orio

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

[www.sagastileihoak.com](http://www.sagastileihoak.com)

**Usurbil Autoak**

Zumartegi Industrialdea, Altzorra kalea, 24  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
usurbilautoak@gmail.com  
Tel: 943 36 10 79

**SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA**

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

<b>PANORAMA</b> 	<b>TALENTO</b> 	<b>QUIRO 2</b> 
<b>300K</b> 	<b>SPORTAGE</b> 	<b>SOLENTO</b> 
<b>SPORIC</b> 	<b>NARD HYBRID</b> 	

**Joseba AROZTEGIA • CARPINTERIA**

687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

ÁTEAK  
ZOKALDOAK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN

**garay manufacture**

**SUKALDEAK**

[www.garay.eus](http://www.garay.eus)

*1959tik sukalde altzarientan lanera.*

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU  
Olabidea aldea 1  
(Errotaberrri Industrialdea)  
20.800 Zarautz  
**943 13 31 09**

**Villar Autobusak**

Bidal nazionalak eta nazioartekoak  
83 eserleku

Autocares Villar  
Orio (Gipuzkoa)  
Tel: 609402537  
Email: autocaresvillar@yahoo.es  
[www.autocaresvillar.com](http://www.autocaresvillar.com)

**XS arKitekura**

obrak  
proiektuak  
erehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
erakinen mantenua

Irudi argiztatze kooperatiba  
Merino plaza 11, Salto  
20801 Orio (G) [xs@arkitekura.com](mailto:xs@arkitekura.com)

635 75 17 22  
943 13 43 58  
[www.arkitekura.com](http://www.arkitekura.com)

403

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Ainara Lasa

## Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Miriam Garcia  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Sonia Albizu

## Ale honetako kolaboratzaileak

Lierni Atxukarro  
Miriam Garcia  
Eider Goiburu  
Iñaki Iturain  
Aiora Larrañaga  
Jabier Zabaleta

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Eli Irureta (Aia)  
Narrea Miralles (Orio)  
Endika Ruiz (Orio)

## Inprimategia

Antza S.L (Lasarte-Oria)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.750 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

# TOKIKOM

2015 **B**ikam  
euskararen  
karitate zuzendaria

## LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Eider Goibururi jarri dio puntua Amagoia Iribarrek: *Martxoaren zortzian guztiok batera*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**EIDER GOIBURU** (DOINUA: XARMANGARRIA ZIRA)

### 1

#### Martxoaren zortzian guztiok batera

hautsi beharko degu  
daukagun barrera;  
honetan ere dugu  
guk denok papera,  
gizonak etxean eta  
andreak kalera

### 2

Egun osoa zehar  
badugu ekintza;  
laguntzeko badago  
nahikoa baldintza.  
Gizona izanikan  
aukera da zaintza,  
emakumeok egiteko  
kalean iraultza

### 3

Zergatik egin greba  
galdegin didate,  
emakume izatea  
da nahikoa kate;  
martxoaren zortzia  
hasiera liteke,  
herria feminista  
bilakatu arte



Aiar ugari bildu zen 2018ko martxoaren 8an, Herriko Plazan. KARKARA

## Hurrengo bertsolaria:

Ander Beldarrain

## Puntua:

Hatoz itxi ta gero,  
gu gaude umezurtz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

## ***Ikastolatik eskerrak***

Tartetxo hau hartu nahiko genuke, abenduaren 24ean Elkartasun Tonbola martxan izatea posible egin zenuten horientzat guztiontzat.

Aurtengoan ere, beste behin, jende andana izan da DBH 4. mailako ikasleoi laguntzeko prest agertu dena: opariak eman dizkiguzuen merkatarri eta ostalariak, Udala eta egunean bertan boletoak erosten gastua egin zenuten herritarrek.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, oraindik ere badelako gurean emateko badagoenik, eskuzabala denik: mila-mila esker!

Jakin ezazue 4180 euro lortu ditugula orotara ekimen honekin, eta urtero bezala erdia Rwandara biderratu dugula eta beste erdia Ikasketak Bidaiako gure gastuak kitatzeko moldatuko dugula.

Urte ona izan dezazuela!

• **Orioko Herri Ikastolako DBH-4ko ikasleak.**

## ***Jubilatu eta pentsionisten eguna***

Martxoak 27, asteazkena, Orioko jubilatu eta pentsionisten eguna ospatuko dugu. Egun osoko programazioa antolatu dugu horretarako. Egunari hasiera emateko, meza izango dugu Orioko elizan, 12:00tan.

Jarraian, bazkaltzera joango gara Aginagako Errasti sagardotegira, 14:00tan. Joan ahal izateko autobus zerbitzua antolatu dugu Goizeko kafetegiarean aurrean. Bi autobus aterako dira, lehenengoa 13:00tean eta bigarrena 13:30ean.

Bazkariaren prezioa 23 eurokoa izango da eta txartelak erosteko aukera, martxoaren 18 eta 19an izango da arratsaldeko 16:00etik 18:00era bitartean. Oriora bueltatzeko autobusa, berriz, arratsaldeko 18:00etan izango da.

Txartela erosi ahal izateko, eguneratuta eduki beharko da bazkide txartela eta bazkaltzera gerturatzen diren guztiek jatetzeko arduradu-

## **Gutunerako oharra**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

nari eman beharko diote. Txartela erosi ondoren atzera egiten duenari ez zaio dirua itzuliko arrazoizko justifikaziorik gabe.

• **Babeslekuko Zuzendaritza**

## ***Gizarteari eta adinekoei bideratutako zerbitzuak hobetuz***

Joan den otsailaren 12an 2019ko aurrekontuak onartu ziren. Horiek oriotarrentzat hainbat hobekuntza ekarriko dituzte. EH Bilduk eta PSE/EEK modu bateratuan Gizarte Ongizate sailerako hobekuntza proposamen bat egin genuen: administrari baten kontratazioa sail horretako bulegorako.

Herritarrekiko arretak kalitatekoa izan behar du udal bulego guztietan. Hori ez da posible ez badago zerbitzu hori eskainiko duen lanpostu eta langilerik, orain arte Gizarte Ongizateko bulegoan gertatu den bezalaxe.

Administrari baten kontratazioak zerbitzuaren kalitatea hobetzen lagunduko du, eta aldi berean, departamendu horretako beste langileen lana erraztuko du.

Legealdi honetako zinegotzi modura, nire lehentasuna izan da ongizate arloan hobekuntzak ematea, baita gure nagusiei eskainitako zer-

bitzuak areagotu eta beren kalitatea hobetzea ere.

Horretarako, urte hauek guztietan hobekuntza proposamenak egin ditut, ekonomia eta azpiegitura arloetan, esaterako. 2016an jubilatuei zuzendutako urteko partida ekonomikoa igo egin zen. Gure nagusiek erabiltzen dituzten azpiegiturak eta zerbitzuak berrituta egon behar dute, kalitatea ez galdu eta beren beharretara egokitze aldera.

Horregatik, 2017an Arozenako ari-keta fisikoa egiteko parkea berritze-ko proposatu nuen, baita autobidea dagoen eremuan horrelako beste parke bat sortzeko ideia bultzatu ere.

2018 amaieran nire proposamenak izan ziren, besteak beste: Itxas-Etxeko ile-apaindegiko altzairuak berritzea, nagusien beharretara egokitzeko; Eguneko Zentroko kanpoaldeko eremua zabaltzea, horretarako eraikin aurreko lorategia eremu argitsu eta zabalago batean bihurtuz.

Noski, proposamen guzti hauek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke Udaleko beste alderdien babesa gabe. Eskerrak eman nahi dizkiet eurei ere, lerro hauen bitartez. Azkenean, proposamen hauek adineko pertsonen eta beren bizitza kalitatearen onurarako izango dira.

• **Ana Priede.** PSE/EE

## ***Mila esker Orio!***

Gutun honen bitartez, Sahararen aldeko Orioko elkartearen izenean eskerrak helarazi nahi dizkiegu Saharako errefuxiatuen alde antolatu den janari bilketan parte hartu duen orori.

Guztira, ehun bat kaxa bildu dira aurten ere. Antolakuntzako kideek esker bereziak eman nahi dizkiegu Orioko Herri Ikastolari, Zaraguetako Eskolari, DYA, Eroski eta Spar supermerkatuei, eta baita, Orioko Udalarari ere jarritako gogo eta laguntzagatik.

Hamarkada bat baino gehiago

daramagu Sahararen aldeko janari bilketa egiten, eta herritarrek ezagutzen duzue kanpaina. Urtero-urtero erantzun bikaina jasotzen dugu zuengandik, normalean aurten bezala ehun kaxa inguru biltzen ditugu.

Beraz eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu herritarrei, oso pozik gaude Orio zer herri solidarioa den ikusteaz. Datozen urteak ere horrelako positiboak izan daitezela! Mila esker!

• **Sahararen aldeko Orioko Elkarte**

## Alkate-dekretuen ezkutukeria

Gutun honen bidez, Orioko EAJren udal-gobernu honen iluntasuna eta ezkutukeria salatu nahi dugu, oso larria iruditzen zaigulako Udaleko gainontzeko alderdiek ez izatea 2018ko abuztutik gaur arte alkateak sinatu dituen dekretuen berririk.

## Izan KARKARAKO laguntzaile

KARKARAK zu bezalako irakurleen babes behar du aurrera egiteko. Orain arte bezala, kalitatezko eduki libre eskaini nahi dizkizugu. Euskaraz informatzea da gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Izan zaitez KARKARAKO laguntzaile, urtean 36 euro besterik ez dira!

Ehunka alkate-dekretu daude hor nonbait ezkutatuta, eta horietako asko eta asko ez dira inongo batzordetik pasatu. Udal-gobernuak hilero pasatu beharko lizkiguke alkate-dekretuak eta ez du egiten.

Orioko herriaren alde egiten dugu lan eta, udal-gobernuaren gardentasuna bermatzeko, ezinbestekoa da alkate-dekretuen jarraipena egitea.

Berriro ere, EAJren udal-gobernuak autoritarismoa eta gardentasun eza erakusten ditu, eta agerian uzten du bere izaera. Jarrera horiek ez diote batere mesederik egiten Orioko herriari. Guri, berriz, ezinbestekoa iruditzen zaigu Orioko herriaren aurrean gardentasunez eta leialtasunez jokatzeko.

• **Orioko EH Bildu.**

## ZORIONAK

- Nagore Faro Ikutza, otsailaren 2an, 10 urte.
- Jon Oliden Etxeberría, otsailaren 8an, 7 urte.
- Ainhitze Oliden Etxeberría, otsailaren 11an, 10 urte.
- Mikel Amilibia Aristi, otsailaren 11an, 21 urte.
- Laida Dorronsoro Arostegi, otsailaren 13an, 23 urte.
- June Amilibia Aristi, otsailaren 17an, 14 urte.

## JAIOTAKOAK

- Lukas Ruiz Etxeverria, urtarrilaren 23an.
- Antonela Isabel Castillo Chicas, urtarrilaren 30ean.
- Iare Manterola Fernandez, otsailaren 6an.

## HILDAKOAK

- Jesus Manterola Iruetagoiena. Orio, urtarrilaren 23an. 82 urte.
- Felipe Cambero Vivas. Orio, otsailaren 8an. 75 urte.
- Sabina Larraza Urtizbera. Orio, otsailaren 16an. 91 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



Angulazaleak EJrekin bildu ziren pasa den otsailaren 9an. A.LARRAÑAGA

# Tantaz tanta

"Osatuko dituzte taldeak, saiatuko dira indarrak biltzen, eta era guztietako ituteak itzali nahiko dituzte."



OAEk Arraunetxean bildu zituen zaletuak. IUNANUE

**K**ostata baina ailegatu zen negua. Udazken lehor baten ostean, zaparrada infinitoen sasoia bizi izan genuen hilaren hasieran. Galtza barrenak bustita, aterkiak desitxurata, putzuzuloak nonahi, ituteak bazterretan... Baina, uste gabe, tupustean, eguzki betea eta giro epela dugu oster, klima ere erotzen hasia dago aspaldian.

Erotzekoa ez bada ere, kezkatzekoa bada basurdeak hainbeste ugaritu izana. Otsailaren hasieran bideo bat bidali ziguten Aiako baserri batetik, etxe kontrari basurdeak azaldu zirela eta. Angulak falta, eta basurdeak soberan, nonbait. Angula falta, horixe izan da aurtengo neguko eztabaidagaia angulazale, zientzialari eta agintarien artean.

Balea, berriz, eri dago hondartza aldean, isatsa galdu zuen denboraleen ondorioz. Ia eguraldi lehor hauekin, konpondu eta gogortzeko moduan diren Orioko udal langileak.

Dena den, aurten, ez dira izan angulazaleak eskean aritu diren bakarrak. Hiru eskolatako ikasleak Santa Eskean aritu ziren hilaren 4an, urtero bezala.

Eta ia urtero bezala, beharrek hor jarraitzen baitute oraindik, Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako janaria bildu eta bidali da. Era berean, lehen Greziarako egin zen moduan, Irungo Harrera Sareak eskatuta, neguko arropa ere bildu da Frantziako poliziaren jardunagatik mugan kateatuta geratzen diren migranteentzat.

Bada horrela, hilabete motz honen bukaerara iritsi gara. Arraun elkartearen *Hemen gatoztink!* kanpainak aurrera jarraituko du. Bestelako kanpainak ere martxan jarriko dira aurki; osatuko dituzte taldeak, saiatuko dira indarrak biltzen, eta era guztietako ituteak estali nahiko dituzte. Baina beste elkarte eta taldeetan, laguntzaileak, arropa edo janaria biltzeko gertatzen den bezala, lan nekezak izaten dira horiek, tantaz tanta osatzen direnak.



Saharako janari bilketa. UTZITAKOA

# Zer iruditzen zaizu biribilgunean jarri duten bale hezurren irudikapena?



“Lore batzuk hobeto geratuko lirateke”

**B**ordatxo atzean benetako hezurra egonda, ez dut ulertzen zertarako jarri behar izan duten gezurretako irudikapen bat.

Lekua ere ez zait egokiena iruditzen, errotonda gaina puskatzeko leku erraza dela uste dut bertatik egunero pasatzen diren kotxe guztiak kontuan hartuta, ez da aproposena.

Horrez gain, ez zait iruditzen estetikoki ere oso itxura polita ematen dionik herri sarrerari, ez diet loturarik ikusten hezurrei errotonda batekin.

Lore batzuk adibidez hobeto geratuko liratekeela uste dut.

**Leire Fernandez**



“Benetako hezurra zabor tartean dago”

**E**gunero pasatzen naiz errotonda paretik eta egia esan, lehenengo aldiz ikusi nuenean ideia ona zela iruditu zitzaidan.

Akats bat duela ikusi dut, ordea, kanpotik datorren inork eta bertako askok ere ez dutela igartzen benetan zer irudikatzen duen. Begiratu hutsean dirudi egur zaharrak pilatu dituztela bata bestearen ondoan lotuta.

Gainera, herrian bertan badago benetako balearen hezurra, Bordatxo tabernaren atzean.

Hezur hori benetakoa izan eta zabor ontzi tartean dago, eta errotondarako irudikapen bat egin dute.

**Marije Lizaso**



“Hobe lukete erradioari pare bat metro kendu”

**I**ruditzen zait ez dela oso ondo ulertzen zer irudikatu nahi izan duten belar gainean jarri duten figura horrekin.

Hala ere, errotondak gure herriko historiaren pasarte garrantzitsu bat adierazi nahi duen aldetik begiratu-ta, ideia ona iruditzen zait egia esan.

Baina, bueno... hobe lukete errotonda horretan zerbait egiten edo berritzen hastekotan, erradioari pare bat metro kendu.

Estetikoki egin ahal zaion ezer baina garrantzitsuagoa iruditzen zait erabilgarritasuna hobetzeko zerbait egitea.

**Iker Lopetegui**



Ubegun industriagunea, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



## 3 eszena



Garbiñe Manterola

**Lanekoekin hamaiketakoan nintzela gure ajeez jardun genuen. Majina fisioterapeuta, osteopata eta kiropraktikoren izenak bota genituen minutu gutxian.**

**B**at. Lantokian antolaturiko jaiotza lehiaketa irabazi zuen gure lantaldeak pasa den gabonetan. Ron-pon-pon. Bai, egia da hori! Otarra bete gutizia eman ziguten eta bazkaria antolatu genuen oporretako tripa-festaren ondoren. Han ginela, taldeko zuzendariak, aurten 40 urte egitekoa den mutilak, azukrearen aurkako kanpaina hasi zuen.

Lankide jubilatuak ere baziren bazkari hartan eta mokadu bakoitzak zuen gozo mailaz galdezka eta barrezka jardun zuten. Dena jan zuten lasai ederrean.

Bi. Orain bi aste, lanekoekin hamaiketakoan nintzela gure ajeez jardun genuen. Majina fisioterapeuta, osteopata eta kiropraktikoren izenak bota genituen minutu gutxian. 50 urtetik gora dituzten bi ziren mahaiaren bueltan eta elkarri begiratu eta galdera egin zion batak besteari. *Hi joan al haiz horrelakoren batera inoiz?* Ezetz, ez batak ez besteak.

Aldiz, beste guztiokin pagotxa ederra dute gremio hartakoek. Negozioa urte mordoxkarako salbu dute, gainera, berrogei urtetik beherakoak baikara denak, eta bada gazte txartela kadukatuta ez duenik ere tartean.

Hiru. Gogoan dut familiako bazkari bat, azido urikoa ilargiraino eta buelta dispartzen duten horietakoa.

Soziedadeko mahaia xomorro gorritz josia, bazen han nahikoa jana eta edana. Gazteenen artean konfesionario txikia hasi genuen. Lehengusuak dieta makrobiotikoa hasia zuen azaleko gaitz batengatik. Bestea etxetik ogi eta guzti etorria zen. Diagnostikoa, moda-modakoa: glutenari intolerantzia.

Hirugarrenak ere onddoak zirela-eta nahikoa kontu bazuen ahoratzen zuenarekin. Alkohola neurritz edaten zuela aspaldian azkenak.

Halako batean lehengusuetako batek mahaiaren beste bazterrera begiratu zuen. *Zer edo zer gaizki egiten ari gaituk*, haiek dena libre eta gu mahaspatsa lehorrak baino okerrago.

Han ziren gure zaharrak, guraso, izeba-osaba eta abarrrak. Haien aurpegiek, botila hutsek eta marisko azalez lepo zeuden platerrek neurrigabeko poza erakusten zuten. Eta gu bitartean eskuko frenoak jarrita.

3 jaso badituzte ere, gehiago dituzte akorduan. Ez dut apokaliptikoa izan nahi, baina hara hor probak. Galbidean goaz.

Nik badaezpada ere frenoak pittin bat askatuko dut. Aldian behinekoak ez digu-eta osasuna kenduko, eman egingo digu. Topa!



*edertegia*  
**ANTILLA**  
*justicia*

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**arkaitz taberna**  
 ... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943 831 657

**KOLON TXIKI**  
 edertegia  
 justizia

Herriko Emparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**PIZZERIA**  
 KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak, bokatak, harburgesak, rasiok, eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!  
**943 831 623**

Ostiralean pintxo potea!  
 Ogasan orain

**ITZALA**

*kartetan jokatzeko aproposa*

tel. 943 83 12 59

**ASADOR XIXARIO**

Eniko Gutarren Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GONAK

Antzaga 9, 20810 Orio  
 Tel. 943 13 15 17

**SU KIA**  
 TABERNA JATETXEA

On egis eta gero... harri KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 802 128  
 AGARONEN 36, 1. BAUKA

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**niko**  
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak  
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

**BODEGON SARASUA**  
 ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK  
 ARRAIN ZOPA  
 PARRILA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

**Portu**  
 ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 6/6  
 943 89 4434  
 20809 AIA-ORIO

*luzatik laserako aldetan pintxo erabiltzeko eraberritu zuten*

**KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA**  
**GELATTO**

izozki naturalak Opilak

943 578 176  
 Herriko emparantzan

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**



**Imanol Ilarramendi**  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



**ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidiak S.L.



Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99



**www.fontaneria-fontana.com**

- Komun eta sakaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

**fontana**  
iturgintza

Piazza Endaia N°1, 20810 - Orio  
fontana-ju@hotmail.es  
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGARITZA

zerbitzu teknikoak  
24 ordu

**ur bide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkalea Kalea, 4  
20800 | Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es



**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



**IGLESIAS**  
SARRAILAGILEAK

**24 ORDUKO ZERBITZUA**

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiasccarrajerostijaboo.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDUEKIN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

**Desatascos**  
LASTER



Hodi-libraketa  
Garbiketaz presio handiko urarekin  
Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa  
Hodien, isurbidien eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin  
Uholde urak ateratzea  
Eskutuko kutxatzen detekzioa

**688 886 536**  
desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascoslaster.com



Sagar erreta 21-A • 20590 Soroluz  
Abaramendi baje 3 • 20810 Orio  
Tel: 943 251 431

**azku**  
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

## Korrika badator



Korrika Batzordeko norbanako eta eragileak

**K**ORRIKAREN 21. edizioak Gares izango du abiapuntu eta Gasteiz helmuga. Tartean, 12an hain zuzen, Oriotik igaroko da, 13:45 inguruan. Norbaitek kilometroren bat erosi nahi balu, gogoan izan, 425 euro dela eta helbide honetara idatz dezake informazio gehiago eskatzeko: [lierni-a.o@aeek.eus](mailto:lierni-a.o@aeek.eus).

KORRIKAK hasierako helburu bikoitzari eusten dio: babes ekonomikoa lortzea eta euskararen aldekotasuna sustatzea. Ildo horretan, euskaltegietan ditugun baliabideak oraindik ez dira nahikoak, aurrerapausoak izan badira ere. Eta, horrekin lotuta, eskolen doakotasuna ere, oraindik ez dugu lortu.

Euskaraldia ariketa sozialak mugimendua eragin du, baina giltzarria da euskara ikasleei oraindik eta babesgune edo espazio gehiago eskaintzea, benetan, denok euskaraz bizi gaitezten.

Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea. Horrek zer esan nahi du? Ez dakienari aukera eman behar zaiola, saiatzen ari denari laguntza eta dakienari hitz egiteko gogoia piztu. Ariketak erraza dirudi: zirt ala zart egin, eta horri eutsi. Alabaina, guztion artean eginez gero izango du arrakasta.

Orioko Korrika batzordean, adibidez, argi dugu elkarlanean gauzak errazago egiten direla eta prest gaude gure gogo bizia herritarrei kutsatzeko. Dagoeneko, biltzen hasiak gara, kultur etxean, eta ateak irekita ditugu, etorri nahi izanez gero. Izan ere, zenbat eta egitarau zabalagoa, orduan eta jende gehiagorengana iritsiko gara.

Korrika badator!



Aiora Larrañaga

## Zapaldua zapaltzailea denean

**M**artxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean milaka emakume kalera aterako gara gure eskubideak aldarrikatzera. Ildo horretan, hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke, gure artean gizartearen zati handi batentzat ikuzezinak diren eta askotariko zapalkuntzak bizi dituzten emakumeak baitaude.

Ez gaitezen engainatu, praktikan emakume guztiak ez gara berdinak. Gizarteak ez baititu berdin tratatzen ibilbide profesional arrakastatsua duen emakume zuria, zaintza lanak egiteko bere herrialdean familia utzi behar izan duena, edo soldatapeko lanik egin gabe etxeko lanez arduratzen den emakume etorkina. Emakume talde bakoitzari estereotipo jakin batzuk ezartzen dizkio gizarte patriarkalak, eta botere harremantant oinarritutako zapalkuntza erreproduzitzen dugu emakumeok gure artean ere.

Fenomenoa konplexua da, zapalduak zapaltzaile bihurtzen baikara. Konturatu gabe, familiaren ardatz eta motorra diren emakumeak, arraza, erlijio, edo klase sozialarengatik baztertu ditzakegu. Horregatik, emakumeon arteko desberdintasunak gainditzeko, elkartasuna, enpatia eta ahizpatasuna aldarrikatu nahiko nituzke KARKARAK eskaini didan bozgorailu honetatik.



Udaletxea botatzen hasi zireneko irudia.

# Suak eramandakoak

Orioko herriak **hainbat sute bizi izan ditu** azken bi mendeetan. Urte desberdinetan emanda ere, martxoan izan ziren bi entzutetsuenak: udaletxea erre zenekoa, 1965ean, eta Thalassa enpresaugarrek hartu zutenekoa, 2010ean.



“1965ean suak Orioko udaletxea kiskali zuen. Herriaren lana heroikotzat jo zuen Udalak.”

“Udaletxe berria itsusia zela eta, Oteizak esan zuen hura bota arte ez zela herrira etorriko.”

TESTUA: IÑAKI ITURAIN/A.LASA  
ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Sua ederra da etxeko sutondoan. Baina etxe osoaz jabetzen denean, drama bihurtzen da. Garai batean nahi baino sarriago gertatzen zen hori. Horrelakoetan, herritar asko batzen zen auzolanean sua itzaltzeko lanetan, elizako sukanpaiek deituta, kanpai-hots bereziak baitzeuden suaren abisua emateko: din-din-din, dan-dan-dan. Izua eragiten zioten kanpaikadek zenbait herritarri. Orion suak kiskali zituenak oroituko ditugu.

### Udaletxea sutan

Sute sonatuena Orion udaletxea erre zuena izan zen. Herritar askori betiko iltzatuta geratu zitzaion kanpaien kadentzia dramatiko hura 1965eko martxoaren 10ean (asteazkena).

*Egun hartan hego haizea zebilen, oso egun haizetsua zen. Arratsaldeko seiak aldean sua piztu zen. Ni Goiko Kalen bizi izan naiz betidanik, eta gogoan dut sekulako kea ikusten nuela gure etxetik, kontatzen du Angel Solabarrieta Orioko bizilagunak. Badirudi udaletxean zegoen nesken eskolan hasi zela, hango kalefakzioa itzaltzea ahaztuta.*

*Berehala jabetu ginen inguruko bizilagunak, eta sukanpaiak jotzen hasita, herritar asko batu ginen suaren kontra, jendeak beren etxeetatik baldeak hartu eta denak batera ahal genuena egin genuen. Bizpahiru pertsona teilatura igo ginen mangera batekin, suhiltzaileak etorri arte. Bi ordu igaro ziren haiek etorri arte!, gogora ekartzen du Solabarrietak.*

Momentu dramatikoak bizi izan ziren. Baina Narciso Idigorasekin suari aurre nola egin zioten harro kontatzen du Anjel Solabarrietak: *Idigoras igeltseroa zen eta ni neu ere ohituta nengoen etxeko teilatuan ibiltzen eta hura konpontzen. Salbamendu titulua aterata nuen, eta hori ere lagungarri izan zitzaidan suteari aurre egiteko garaian.*

Denen ahaleginari esker, artxiboko agiri asko salbatu zituzten sugarretatik, eta *arraunean irabazitako banderak eta kopak ere bai*; baina beste agiri asko galdu egin ziren betiko.

Udalak martxoaren 16ko ohiko udalbatzarrean sutearen gaia aztertu zuen. Batzar hartan heroikotzat jo zuten hiru herritarrek sute hartan izandako jokaera: Francisco Uranga Izeta, Anjel Solabarrieta Etxezarreta eta Antonio Aduriz Urdangarinena. Haien alde ohorezko aipamena egitea erabaki zuten, aho batez.

Suak erretako udaletxea bota eta haren ordeztatu 1974ko martxoaren 9an inauguratu zuten udaletxe berria; eta zutik egon zen urteetan, Euskal Herriak izan duen itsusiena izan zen.

Bitxikeria moduan, Jorge Oteizak behin ondorengoa esan omen zuen: *udaletxe hura bota arte ez zela gehiago herrira etorriko.*



Thalassako sutea; behean, fabrika itzaltzen jardun zuten hainbat suhiltzaile; goian, 'Arin y Enbil' fabrika kiskalita; Anjel Solabarrieta, gaur egun.

### 'Arin y Enbil' altzari-fabrika kiskalita

Udaletxea bezala kiskalita geratu zen, hiru urte eta erdi geroago, *Arin y Enbil* altzari-fabrika zaharra, herriko zaharrena, 1887an altxatua. 1968ko abenduaren 24an, Olentzerok ez zion opari onik ekarri *Arin y Enbil* lantegiari; ez zion ikatzik ekarri, sua baizik.

Jose Luis Arin, oraingo nagusiak *ezer gutxi* omen daki, ordukoaz, baina gogoan du *arratsean ondo itzali gabe utzitako zigarro batek ekarri* zuela *su hura*. *Goizaldean sugarrek hartu zuten fabrika eta, ordu gutxitan, han tximinia bakarrik geratu zen zutik.*

Hilabete batzuetara beste bat altxatu zuten, oraingoa. Enbil familiako senide batek kontatu zuenez, *Jorge Oteiza* fabrikari sartu zen, *sutan zegoela, handik Bittor Enbil*en brontzezko irudia ateratzerako, *orain plazatik elizarako aldapan dagoena*. Irudia Jorgek bere osaba Bitorri egin zuen.

### Orioko azken sute handia, Thalassa fabrika

2010eko martxoan ekarri zuten egunkariak Orioko azken sute handiaren albistea. Sutea martxoaren leian gertatu zen, astelehenarekin. Erriorearen beste aldean arraun klubaren ondoan zegoen Thalassa enpresa ia osorik kiskali zuen sute ikaragarriak. *Arratsaldeko bostak inguru ziren, eta lau suhiltzaile geunden Zarauzko egoitzan, guardian.*

# 50

**ontzi.** Istripuak diru-galera handiak eragin zituen bietan. Thalassako pabiloi osoa eta 50 bat ontzi ezereztu zituen. 2.000 metro koadroko enpresak 60 urte zeramatzan lanean Orion.



Udaletxeko teilatua su hartuta, 1965.urtean.

*Ke beltz-beltza ikusten genuen Orio aldetik, eta lehenbait-lehen hara joan ginen. Sutea jada izugarria zen, ez genekien zauriturik zegoen, Ertzain batek esan zigun arraun kluba zela... dena konfusioa izan zen hasieran, dio Iñigo Arruti Txabolak. 25 urte daramatza suhiltzaile lanean, eta aitortzen du bere ibilbide profesionalean gutxitan ikusi duela halako sute bat. Badirudi langile batek istripu bat izan zuela, berotzeko soplete batekin zebilela, dirudienez erregai bat ukitu zuen eta leherketa bat eman zen. Hortik aurrera sutea berehala zabaldu zen.*

Yateak konpondu, zaindu eta saltzen zituen Thalassa enpresan piztu zen sua, berehala zabaldu zen itsatsita zegoen *Futurquímica*, garbiketarako produktuak fabrikatzen dituen enpresara, eta pabilioi guztira, Arrutik dioenez. *Nire lankide den suhiltzaile batek txalupa bat du Orion, eta behin baino gehiagotan ohartarazi zion Thalassako enkargatuari bertako materiala errekorra zela, eta espazio bakoitza ixtea komeni zela, sute bat gertatuz gero, fabrika guztia berehala erreko zela bestela. Eta hala gertatu zen. Salbatu ziren bakarrak izan ziren aparteko erakusketa gela batean zeuden yate eta ontzi berriak, eta goiko bulegoa, hori ere aparteko gela bezala ondo itxita baitzegoen.*

Guztira 25 bat suhiltzaile izan ziren 24 orduz buru-be-

larri lanean, geratu gabe, sua itzaltzeko lanetan. Oso nekeza eta gogora izan zela dio Arruti Txabolak.

Istripuak diru-galera handiak eragin zituen bietan. Thalassako pabilioi osoa eta 50 bat ontzi ezereztu zituen. Bost bakarrik atera ziren kaltetu gabe suaren garretatik. 2.000 metro koadroko enpresak 60 urte zeramatzan lanean Orion.

Kalterik handiena hala ere hango langile bati ekarri zion, 48 urteko Jesus Arruti oriotarrari, erredurak izan zituen aurpegian, eskuetan eta hanketan. Anbulantzia batek Orioko futbol zelaira eraman zuen larri zauritua, eta handik helikopteroz Bilboko Gurutzeta ospitalera, erredura handietako unitatera. Suak hartutako enpresen ondoko Urgain etxeko bizilagunek hustu egin behar izan zuten etxea, badaezpada, sugarrak etxeraino iristeko arriskua zutelako.

Suak eramandakoak ez zuen momentuan konponbiderik izan. Baina oriotar eta inguruko herritar askoren lanak ezinbestekoak izan ziren suaren garrek txikizio handi-agoa egin ez zezaten. Anton Enea okindegia, Katxiña, Benta baserriak –Benta, bi aldiz–, edota Orio eta Igeldo arteko mendiak suak hartu zituenean, herritarrak bertan egon ziren, suari aurre egiten; une oro hankak lurrean, eta bihotzean borondate onena zutela.

# “Oso garrantzitsua da herrian eragingo duten ikasleak sortzea”

## Zigor Saizar

Orioko Herri Ikastolako zuzendaria

2015. urtean jarri zuten martxan Konfiantzaren Pedagogia Orioko Herri Ikastolan. *Haurrari proposamen desberdinak jartzen zaizkio eskura une bakoitzeko interes eta beharren arabera.* Emaitzak ikusten hasi da Zigor Saizar zuzendaria.

### INTZA UNANUE

Haurra jartzen da erdigunean proiektu honetan, bera da protagonista eta gaitasunez betetako izakia gisa ulertzen da. Mundua ezagutu nahi horretan bere interesetatik abiatu behar du bere esperientzi eta garapen prozesuak, baina hori horrela izan dadin ezinbesteko garrantzia du inguruan konfiantza edukitzeak. Konfiantza hori hezitzaileekin ematen den harremanetan oinarritzen da baina batez ere familiek hezkuntzako eremu eta pertsona horiekiko dutenean.

#### **Konfiantzaren Pedagogia proiektuaren barruan ikasgela ezberdinak bateratu dituzue.**

Orain hiru urte hasi ginen Haur Hezkuntzan bateratze lanak egiten, beheko solairuan, guraso eta langileen arteko auzolanean. Pixkanaka solairuz solairu joan gara. Lehen Hezkuntzako eremuekin gabiltza orain lanean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere eredu berriak eskatzen dituen egokitzapen arkitektonikoak egitea da aurrera begirako helburua.

Konfiantzaren Pedagogiak beharrezkoak dituen espazio hauek sortzeko, paretak bota ditugu eta mikro-espazioak sortzen joan gara. Adin ezberdinetako haurren elkarbizitza ekarri du horrek.

Familiekin ere bat egitea lortu da, ikastola barruraino sartzen dira konfiantza osoz; lehen gelak zeudenean gurasoak atarian geratzen ziren. Orain haurrak kontziente dira beren gurasoek eta aiton amonek irakasleekin hitz egiten dutela, horrek segurtasuna eta konfiantza ematen diete. Horri esker, esploratzen hasten dira, esploratzeak kuriositatea eragiten du. Sentimendu hori da azken batean ikasten hastera bultzatzen diena. Ikasketa prozesua

emozioekin dago lotuta eta horretarako leku seguru eta konfiantzazko bat behar du haurrak. Espazio berriarekin hori lortzea da gure asmoa.

#### **Emaitzak jada jasotzen ari zarete, beraz? Ikasleengan motibazio handiagoa dagoela ikusten duzue?**

Obrek lagundu egin dute aurrez irakasleak jaso duten prestakuntza guzti hori aplikatu ahal izateko bidean. Asko aldatu da ikasteko modua, Lehen Hezkuntzan, adibidez, proiektuka egiten dute lan. Pentsamendu estrategiak txertatzen dira.

Lehen ezagutzen ziren liburuak ia ez dira erabiltzen, banakako mahaiak ere gutxi daude jada. Proiektu mahaiak daude orain, kooperatiban lan egiteko.

Eboluzio handia ikusten dugu. Ikasleak talde lanean askoz kompetenteagoak dira, ardurak banatzerakoan eragileagoak dira eta ikasle profil bat egiten ari gara. Orioko Ikastolarentzat oso garrantzitsua da aktiboa izango den eta herrian eragingo duen ikaslea sortzea.

#### **Mahi-mahi egitasmoa ere jarri duzue martxan ikasturte honetan. Zertan datza?**

Jangelari dago lotuta proiektua, ikastolaren azken hirulau ikasturteetako berrikuntza pedagogikoari jarraiki obra egin dugu eremu honetan ere.

Lehen bazkaltzeko orduan ikasleak pasiboak ziren, zerbitzu jasotzaile hutsak, giroa ez zetorren bat ikastolaren aktibotasunarekin.

#### **Zein dira ikaslearen jarrera aldatzeko aipatzen dituzun berrikuntza horiek?**

Diseinua aldatu dugu, kolore biziagoak sartu dira baina aldi berean lasaiaagoak, lurra ere etxeetan bezala egurrez-





Mahi-mahi proiektuan haurrak beren bazkaria zerbitzitzen. Zigor Saizar ikastola ondoko parkean IKASTOLA/KARKARA

“Familiekin ere bat egitea lortu da, ikastola barruraino sartzen dira konfiantza osoz.”

koa jarri da, sortzen den zarata kentzeko sabaia jaitsi da. Ikasleak ikastola ere bere etxea bezala sentitzea nahi dugu.

Dinamizazioan ere aldaketa egon da, begiraleek rola aldatu dute, orain ez dira zerbitzariak, bide-lagunak baizik. Ikasleak berak dira janaria banatzen dutenak, mahaia jaso, garbitu... aktibo daude orain, bazkariaren parte dira.

Aldaketei esker guztiz beste dimentsio bat hartu du bazkariak haurrentzat, elkarlanean aritzen dira egin beharretan. Berea sentitzen dute.

**Ikastolako eraikinaren fatxadari dagokionez, udan obreretan egon da, zer da zehazki egin duzuen?**

Guztira lau faseko obra bat da, udan lehenengo bi faseak egin ditugu, hau da, fatxada kanpoaldetik berri dugu. Zatiak erortzen ziren, egoera larrian zegoen.

**Eta hirugarren eta laugarren faseak?**

Udalak onartu dituen aurrekontuetan, gure eraikinaren obrarentzat zati bat gorde du. Hori jakinda, gure asmoa, azken bi faseak aurten egitea da. Horretarako, une honetan Ikastola aztertzen ari da gai izango ote garen 2019ko udan egiteko.

Azken faseei ekiteko, eragina dute alde batetik, fatxadaren barrualdeko obrek eta bestetik B eraikinean epe laburrean egingo diren barneko egokitzapen arkitektonikoekin. Aipatutakoak ondo lotuta izatea garrantzitsua da hiru eta lau faseei ekin ahal izateko.

Udal eraikina den aldetik, Udalarekin elkarlanean jarraitzea da gure helburua eta gardentasun osoz arituko gara asmo horrekin.

# Karkara<sup>30</sup>urte

karkara.eus



## *Masailekoak, ezker eskubi*

Jabier Zabaleta

***“Noiznahi tokatu zitzaigun KARKARAn publikatutako zerbaitek herriko talde politikoetan sortutako suak itzaltzen ibiltzea”***

**K**ARKARAKo lagunek hitz batzuk idaztea eskatu didate, aldizkarian bizi izandako anekdotaren bat-edo kontatzeko. Ia 25 urte eman nituen aldizkarian eta asko kontatu nitzake; baina, hauteskunde-ziklo bete-betean sartu garen honetan, buruko min handiak sortzen zizkigun gai bat ekarri nahi dut hizpidera: herriko talde politikoekiko harremana.

Hasiera-hasieratik izan zen gorabeheratsua harreman hori. Gogoan dut aldizkariaren 7. zenbakia oso berezia izan zela, fotokopiatan atera genuelako protesta egiteko, orduko Udalak ez zuelako onartu mahai gainean jarri genuen proposamena KARKARA hilero argitaratzeko. Garaiko HBk aldeko botoa eman zuen; baina Udala orduan gidatzen zuen alderdia —gaur egun EH Bildun dagoena (!)— kontra agertu zen.

Gero ere noiznahi tokatu zitzaigun KARKARAn publikatutako zerbaitek herriko talde politikoetan sortutako suak itzaltzen ibiltzea. Gogoan dut, behin, oso tarte txikian, herriko bi alderdi nagusiekin bilera bana egin behar izan genuela, aldizkariko edukien gainean azalpenak emateko. *Jope, dena oker egiten ari gara!* pentsa zezakeen norbaitek; nik, berriz, positiboan beti, kontrakoa uste nuen: *Masailekoak ezker-eskubi jasotzen ditugun bitartean, ez gabiltza gaizki! :-)*

*eta hamaika bitxikeria*



## *Karkaran bizitakoak, ondo bizita*

Miriam Garcia

***“Txirrindulari itzuliarena mundiala izan zen Aian. Amaitu zenean, etxera oporretan izan banintz bezala itzuli nintzen”***

**K**ARKARAtik deitu didate, 30. urteurrena dela eta anekdotak biltzen ari omen dira, eta nireak kontatzera animatuko ote naizen galdetu didate. Pentsatzen jarrita, hasiera batean, ez zaizkit anekdota bereziki esanguratsuak etorri burura. Etorri direnak, gainera, ezin hemendik kontatu.

Egin ditudan erreportajeetan pentsatzen hasi naiz, eta badut bat bereziki maitea: martxoaren 8ko greba zela eta, Orioko adin eta jatorri desberdinetako emakumeekin mahaiairen bueltan jarri eta bizpahiru orduz berriketan aritu ginenekoa; plazer hutsa izan zen beren istorioak entzun eta haiengandik ikastea.

Txirrindulari itzuliarena ere mundiala izan zen Aian. Txirrindularitzaz ezer jakin gabe, 2015eko itzulia Aian amaitu zenean, etxera oporretan izan banintz bezala itzuli nintzen. Ez pentsatu gaizki, lana mordoa egin genuen, baina Aian sortu zen giroarekin poza ematen zuen lan egitea.

Ireki da atea. Behin pentsatzen jarrita, gogoratzen hasi eta konturatu naiz erredakzioan buru-belarri pasatako lau urtetan anekdota bildumatxo bat osatua banuela. Baina gehienak, kar kar kar, ezin dira hemendik kontatu.



# SANTA -ESKEA ORIO-AIA

## Gustura ibili dira ikastetxeetako haurrak Santa-eskean

Aurten ere, Aiako eta Orioko eskoletako haurrak herriko kaleetan barrena kantari aritu dira Santa Ageda ospatuz. Baserritar trajez jantzita eta makila eskuan hartuta auzoz auzo ibili ziren kantari, tradizioari jarraiki.





# Hiru bide ezberdin, ingelesaren biran

## **INTZA UNANUE**

Ingelesak batu zituen hiru aiar elkarrizketatu ditugu: Mikel Oteiza, Pat Cowie eta Maddi Aldai. Gazteek Lehen Hezkuntzako azken bi urteetan Cowie izan zuten eskolaz kanpoko ingeles irakasle, berrikuntza garrantzitsua izan zen herriarentzat. Garai hartako oroitzapenetara egin dute salto hirurek KARKARArekin izandako solasaldian.

# “Adin horretan hizkuntzari beldurra kentzea da helburua”

## Pat Cowie

Ingeleseko irakaslea

32 urte daramatza Aian Pat Cowiek. Haur, gazte zein heldu askoren ingeleseko irakasle izan da hamabost urtez. Horretarako kantuak, antzerkiak eta bestelako metodologia dinami-koak erabili ditu.

Eskozian jaio zen Pat Cowie, ekialdeko kostaldean, Portgordon. Unibertsitate ikasketak egitera Newcastlelra joan zen. Caracasen eta Ingalaterran bizitzen egon ondoren, Euskal Herrira iritsi zen 39 urte zituela senarrarekin batera, Aiara. Irtsi eta hilabetera euskara ikasteari ekin zion, nahiz eta senarrarekin eta seme alabekin beti ingelesez egon izan duen etxean.

### Noiz eta non hasi zinen ingeleseko klaseak ematen?

Euskal Herrira iritsi eta bi urtera ekin nien klaseei, 1988an. Akademia propioa ireki nuen Orion, bertan adin guztietako ikasleak eduki nituen, haur, gazte zein heldu. Hamar bat urte egon nintzen, krisiak eraginda itxi behar izan nuen arte. Ondoren, KARKARAN egin nuen lan urte batzuetan, baina berriz ere 2004an ingeleseko klaseak ematen hasi nintzen, kasu honetan, ordea, Aian.

### Zerk bultzatu zintuen berriz ere klaseak ematen hastera?

Udalak eskaini zidan herrian nire zerbitzuak ematen hasteko aukera, horretarako, kultur etxean lekua utzi zidaten. Nik kudeatzen nuen dena, alde batetik helduak nituen eta bestetik bosgarren eta seigarren mailako gaztetxoak.

### Ze oroitzapen dituzu etapa haren inguruan?

Berezia izan zen Aian lan egitea, bertako jendea eza-gutzen nuen. Ordura arte zaila zuten umeek eskolaz kanpoko ekintzetara joatea, asko baserrietan bizi ziren eta eskola ordutatik aurrera ezin izaten zuten Oriora edo



Zarautza mugitu ingeleseko klaseak jasotzera.

Gogoan dut nirekin egon ziren bi mailetako umeak ikaragarri mugituak zirela, energiak beteta etortzen ziren, a zer zarata! Lasaitzeko kantatzen jartzen nituen ingelesez, sekulako gogoia jartzen zuten, ikaragarri disfrutatzen zuten.

### Asko hobetu zuten ingeles maila?

Adin horretan helburua ez da maila hobetzea, nire ustez garrantzitsuena ingelesari dioten beldurra eta sentitzen duten latsa kentzea da. Horrek bidea errazten dio etorkizunean ikasteari.

### Zer moduzko harremana egin zenuen umeekin?

Egia esan harrigarria da genuen harremana, edozein egoera ematen zela ere izugarrizko errespetua zegoen denon artean, ez nituen tratatzen umeak bezala, energia asko behar nuen berak gidatzeko baina beti parean ginea sentitzen nuen. Bai nire aldetik eta baita beraienetik ere.

### Jarraitzen du harreman horrek gaur egun?

Egia esan herritik kanpo bizi naiz, nire umeak haurrak zirenean beti nengoen herrian gauza guztietan parte hartzen. Orain ez daudenez hemen, nire bizitza Orion eta Zarautzen gehiago enfokatu da.

Hala ere asko gogoratzen naiz haietaz, batez ere garai hartako argazki zaharrak eta DVD-ak aurkitzen ditudanean.



# “Asko eskertzen diet gurasoei ingelesa ikasteko bultzada”

## Mikel Oteiza

Medikuntzako ikaslea

Gaztetxo zenetik du Mikel Oteizak toki eta jende berria ezagutzeko grina. Ingelesa ikasteko atzerrira egindako bidaiak hizkuntzarekin lotura berezia izatea eragin diote. Orain, bere egunerokotasunaren parte da ingelesa.

22 urte ditu Mikel Oteizak eta Bilbon bizi da Medikuntzako Gradua ikasten Basurtoko fakultatean. Graduako 5.mailan dago, hurrengo urtean egingo ditu ospitaleko praktikak, Ekuadorren.

**Aiarra zara baina 18 urte zenituenetik Bilbon bizi zara.** Bai, nik uste kanpora ateratzea bilatu izan dudala bizitza osoan. Txikitatik dudak zerbaite da. Nire gurasoek Ingalaterrara bidali ninduten uda batez, 14 bat urterekin. Hasieran txoke handia izan zen baina oso gustura egon nintzen jendea ezagutzen. Gero, jarraian, Irlandara joan nintzen birritan.

**Hiru uda horiek atzerrian lagundu zizuten hizkuntza hobetzen?**

Bai, hobetu nuen baina egia esan lehen bidaiak hura egiteko jada ingeles maila nahiko altua nuen, Aiako eskolatik Lizardira joan ginenerako gogoratzen dut oso maila ona genuela Aiarrok bertakoekin alderatuta.

**Neurri batean, beraz, Pat Cowierekin lortu zenuten ingeles maila altu hori?**

Bai Pat-i esker eta baita eskolan ikasitakoari esker ere. Oroitzapen oso onak ditut eskolaz kanpoko klase horietaz. Klaseak oso interaktiboak ziren, bi ikasturte pasa genituen Pat-ekin.

Askotan kuadrillako afarrietan eta garai haietaz gogoratzen gara, egiten genituen antzerkiak, grabatzen geni-

tuen DVDak... Ez ginen kontziente ordea, hain zaratuak ginenik, kar-kar.

**Zertan aldatu da zure ingelesarekiko pentsaera garai hartatik gaur arte?**

Klase horietan ez genuen teoria asko ikasi baina ikaragarri familiarizatu ginen hizkuntzarekin. Garai hartan genuen sententzia zen etorkizunerako ondo etorriko zitzaigula ingelesa jakin eta menperatzea. Orain, berriz, bizitza disfrutatzeke baliabide bat iruditzen zait.

Zinea oso gustuko dut eta zirkuitu komertzial arruntetatik atera nahi baduzu esparru horretan, ingelesa bai edo bai kontrolatu behar duzu.

**Autonomia handia eman dizu, beraz?**

Bai, asko, hizkuntza unibertsala da, gaur egun gakoa da menperatzea.

**Egunerokotasunean jarraitzen duzu ingelesarekin hartu emanean?**

Bai, lagun bat dut Donostiako turismo bulegoan lanean, bisitariak joaten zaizkionean niri deitzen dit haiekin komunikatzeko. Oraintxe bertan gainera, Gradu Amaierako Lanarekin nabil buru belarri eta irakurtzen nabilen artikuluko zientifiko guztiak ingelesez dira.

Txikitan beste era batera ikusten banuen ere orain asko eskertzen diet gurasoei hizkuntza hau ikasteko emandako bultzada guztia.



# “Ingelesez euskaraz bezalaxe egiteak asko bete ninduen”

## Maddi Aldai

Garraioko eta Logistikako teknikaria

Haurra zenean hasi zen ingelesean trebatzen Maddi Aldai, eta azken ikasturte honetan atzerrian bizitako esperientziarekin hizkuntza menperatzea lortu du.

21 urte ditu Maddi Aldaik. Garraioko eta logistikako goi mailako zikloa ikasi du eta gaur egun lanean dabil garraio berezien Donostiako enpresa batean. Hainbat ardura ditu bertan, hala nola, garraioen eta gidarien gestioa aurrera ematea, bezeroekin egunerokotasunean hitz egitea, bidaiak antolatzea...

### **Pat Cowierekin bi urte egin zenituen ingelesa ikasten, orduz geroztik jarraipenik eman diozu?**

Egia esan bai, Lizardin jarraitu genuen ingelesarekin, eta ondoren, klase partikularrak jaso nituen Holandako mutil batekin.

Urte asko pasa ditut ingelesa hobetzen. Lehenengo titulua, FIRST-a 16 bat urterekin atera nuen. Goi mailako zikloa egiterakoan ere ez nuen alde batera utzi.

Ikasketen bigarren urtean, gainera, goizetan ikastera joaten nintzen eta arratsaldeetan lanera. Azkenean erabakia hartu nuen bizitzari aldaketa eman behar niola eta gaztea izanik nahiko denbora banuela lan egiteko aurrerago ere.

Horregatik, Londresera joan nintzen bizitzera urte betez, asko eskertu nuen ordura arte hizkuntza ikasten ibili izana.

### **Esperientzia ona izan ahal da?**

Hasieran urduritasun asko pasa nuen, hitzak tratatzen zitzaizkidan, ez nintzen ondo adierazten.



Pixkanaka- pixkanaka hobetzen joan zen egoera hori, ordea, han ere hizkuntza ikasteko klaseetan ibili nintzen urte guztian zehar.

### **Ingelesarekin lehenengo hartu emana Aiako eskolan eta Pat-en klaseetan izan zenuen. Ze oroitzapen dituzu?**

Oso onak, gogoratzen dut DVD bat egiten zela eta hori ikustea sekulako oroitzapena da gaur egun.

Oso ondo pasatzen genuen, ez zen teoria hutsa baka- rrik ematen, oso dinamikoak ziren klaseak. Antzerkiak egiten genituen, kantatu...

Orokorrean esango nuke oso gustura joaten ginela denok.

### **Ingelesa ikasten jarraitzeko asmorik ba al duzu hemendik aurrera?**

Bai, ez dut hizkuntza galdu nahi. Egunerokotasunean entzuten ez denean hizkuntza bat azkenean galdu egiten da, batez ere hitz egiteko erraztasun hori.

Londresen nengoela amaiera aldean konturatzen nintzen jada automatikoki ateratzen zitzaidala, orain euskaraz ari naizen bezalaxe irteten zitzaidan ingelesa ere. Horrek pertsonalki izugarri bete ninduen.

### **Beste tituluren bat ateratzeko asmoarekin zabilta, beraz?**

Bai, hori da nire asmoa egia esan, klaseak jasotzen jarraitu nahi dut, orain arte ikasitakoa ez galtzeko eta Londresen eskuratu dudana erraztasun horri eusteko.

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



15eko dezentzia familia egarrien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889  argine/jantziak




Tf: 943 130 438




**TOTAL TRAINING**  
talde berria  
**Astearte-ostegun 19.30**  
+info karelaiko harreran



**ELEKTRIZITATEA**  
Ander Exposito  
943 831 774  
600 856 728  
anderexpoeletrizitate@gmail.com



Tel. 943 83 31 03

**ITZIAR KIROLAK**

Reebok  trang@world  
adidas   



**Arropa**  
**Oinetakoak**  
**Osagarriak**

Arrotza kalea, 1 ■  
T 943 04 005  
DRD (Guzkotu)

Zigorri kalea, 10 ■  
B. Fontaneko kalearekin elkarrean  
T 943 021 034  
ZARAUZ (Guzkotu)

Ertara kalea, 10 ■  
T 943 04 003  
ZUNDA (Guzkotu)

Feru ibidea, 2 ■  
T 943 02 375  
Agella (Guzkotu)

www.kailoa.es 



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net



itzilizaso@gmail.com  
Tel: 943 83 07 84

**Lizaso Dekorazioa**  
Eusko Gudari, 48 20810 Orio



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK 

TEL/F - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
iasenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO




Tel: 943 100 181  
Mobiila 640 281 308  
Zigorria, 52 - Behea C  
20000 Zarautz  
kukuuarri@kukuuarri.com

le apaindegia

**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrrosia  
Zefaleak ...

Masaje terapeutikoa,  
bentosaak, akupuntura,  
eskako terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritza kalea, 11 behea

Galdetu aurrekontua  
konpromisurik gabe

2019 Jaunartzeak

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTADIOA-  
lorozaintza@rosana.com  
tel: 943 83 34 45




**TXUKUN LORAZANTZA, S.L.**

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com

Lorezaintza  
Mendiko lanak  
Indusketak  
Itxiturak  
...




**Zaragueta Herri Eskola Orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

# Anuska Esnal eta Iñaki Telleria izango dira Orioko eta Aiako EH Bilduko alkategaiak

Anuska Esnal Oliden izango da Orioko EH Bilduren alkategaia 2019ko udal hauteskundeetan. EH Bilduk antolatutako prozesu parte hartzailean izena emateko epea agortuta, hautagaitza bakarrak Herriko Hauteskunde Batzordearen aho bateko babesa izan du.

Atzo iluntzean, hilak 21, oinarriarekin egindako batzarrean, aho batez berretsi da bere hautagaitza.

Esnalek Anuska Esnalek adierazi du erronka honi *pozez, ilusioz eta erantzukizunez* heltzen diola eta *Orio hobe baten alde lan egiteko gogoz* dagoela.

Anuska Esnal Oliden (Orio, 1980) gizarte laguntzailea da. Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte larrialdietako zerbitzu-burua da 2014tik. Bere lanean gertu-gertutik bizi ditu bazterketaren eta bortxakeriaren ondorioak, eta horiek jasaten dituzten pertsonak. Horretaz gain, kudeaketan eskarmentua du, eta harreman zuzena



Anuska Esnal.


administrazioarekin. Herri-gintzan ibilia da, eta azken bi urteetan Orioko Herri Ikastolako Lehendakaria izan da.

Aiari dagokionez, Iñaki Telleria Astigarraga izango da EH

Bilduko hautagaia. Telleriak 62 urte ditu. Azkoitian jaio zen, eta azken 30 urtetan suhiltzailea izan bada ere, gaur egun erretiroa hartuta dago.

Aurretik, itsasoan, meate-

gian eta kamioilari gisa lan egin du; beti aritu izan da sindikalismoan lanean. Orain dela hiru urte joan zen Aiara bizitzera. Bere burua *indartsu eta gogotsu ikusten du, Aiari eta aiarrei, laguntza eman, iritziak elkarbanatu eta elkarrekin lan egiteko*. Martxoaren 1ean izango da bere aurkezpen ekitaldia Aian. KARKARAK aurkezpenaren inguruko informazio zabalagoa emango du datozen egunotan.



Iñaki Telleria.

## Orain taldea 2019ko udal hauteskundeetara aurkeztuko da Ana Priede izango da PSE/EEko zerrendaburua



Ana Priede.

Orain Herri Plataforma eta PSE/EE alderdiek KARKARari baieztatu diote datozen hauteskundeetara aurkeztuko direla. *Zerrenda amaitzen dugunean jakinaraziko dugu nor izango den gure alkategaia*, adierazi dio KARKARari Orain taldeak.

Alderdi sozialistari dagokionez, Ana Priede Merchan izango da maiatzeko hauteskundeetan zerrendaburua. Priedek azpimarratu du *2015-2019 agintaldian gauza asko geratu direla egiteke. Datorren agintaldiari begira —dio— komenigarria da alderdi aniztasuna egotea Udalean; horrela, gehiengo osoak saihestu eta alderdien arteko elkarlana eta akordioak bultzatu ditugu.*



Moila altxatu arte, urak ia urtero egiten zuen gainezka.

# Sua eta ura, belaunetik behera

**Oroimenaren  
kutxa**

**A**irea, ura, lurra eta sua dira munduko lau bizi-gai naturalak. Laurak ditu beharrezko biziak, ezinbesteko gizakiak. Baina horiek haserretu eta haizea, euria, lurrikara edo sutea handiak direnean, erne! Euskaraz bada esaera zahar bat, *Sua eta ura, belaunetik behera*, horien arriskua gogorarazten diguna.

Haizeak biztu egiten du sua, handitu; urak, itzali. Baina ura ere, neurritz gain, kaltegarri bihurtzen da. Izugarri gutxi egitea bezain txarra da ikaragarri asko botatzea. Goitik behera ur asko datorrenean, behetik gora ere igotzen hasten da: errekek eta ibaiak gainezka, eta lurrak eta etxeak ur azpian. Garai batean, irailean urtero, San Migeletako marea bizietako itsasgoran, Orioko moilaren maila gaindituta ura herriko plazan eta inguruko kaleetan ibiltzen zen.

Hotz handiak ura izotz bihurtzen du, harria; eta hori arriskutsua izan ohi da. Joxe Ramon Zubimendi zubietarrak 'Gipuzkoa Mari-lur' bere liburu ederrean ondo azaltzen du nolako kalteak sortzen dituen kazkabar edo txingorrak:

*Harriak udan kalte handia ekartzen du: baratzea eta landareak suntsitu, fruta-arbolak abarrikatu, larreko hegaztiak eta abereak elbarritu, aterperik gabeko jendeak zauritu... Harri-jasak hondamendia dakar hiruzpalau minutuan, eta gosea, urte guztiko uzta galduz gero. Ez da harritzekoa, beraz, udako ekaitz-hodei beldurgarriak uxatu nahi izatea: hodeiei suziriak boteaz, eskopetaz tiro eginaz, hoska... Gipuzkoako garai bateko udal-aurrekontuetan ohikoak ziren ekaitz-hodeien aurkako konjuroak egiteko diru-partidak. Euskal Herrian baziren ekaitzari non lehertu eta harria non deskargatu agintzen ziotenak. Aiako Altzolan, Semeola baserriko etxeoandreak ekai-*

*tzari honela agintzen zion: Karga Izarraitz eta deskarga Ernio; eta guarda Altzola, endemas Semeola!*

Baina euririk gabeko lehorre luzeetan ere jendea kezkatzen zen, landareak ureztatzeke eta edateko ere ur gutxi zenean errogatibak egiten ziren herriz herri, aspaldiko sineskeriei lotutako erritualak, ahalmena zuenak euria bidali zezan.

Antonio Camposek errogatibei buruzko anekdota polita kontatu zigun: *Orion behin, lehorre luze samar batean, errogatibak egiteko deialdia egin zen, herria elizan bildu eta Jaungoikoari errezatzeko, euria bidali zezan. Jorge Oteiza zena ere joan zen elizara, oinetan katiuskak, soinean txamarra eta eskuan guardasola zuela. Han, bera bakarrik omen zegoen gisa horretan jantzita; eta hala esan zien elizara bildutako herritarrei: fede gutxiko jendea zaretue zuek, ez duzue sinesten goikoak euria bidaliko digunik!*

Asun Goñik ere anekdota polita du. Asun nafarra da jatorriz, Etxarri Aranazkoa. Jose Antonio Salsamendi zenaekin ezkondu zen Oriora, 1965-01-09an. Eztei-bidaia San Sebastian bezperan bukatu zuten Donostiako danborradan. Etxera etorrita, gau hartan bertan goizeko bostetan zafarrantxoa izan zuten, moilan gainezka egin zuen errioko urak eta Jose Antonioren ama Triniren dendaraino iritsia zen, oraingo Carmen arrandegiraino. Luis Itxaspe serenoak eman zien abisua, dendako garbantzu-zakuak eta igeri zebiltzala uretan.

Handik hilabete eta erdira, berriz, 1965eko martxoaren 10ean, txinpartak iristen zitzaizkien dendaraino, udal-txea kiskali zuen suarenak. Orduan beraiek busti behar izan zituzten dendako ateak, badaezpada.

Ura eta sua, denbora gutxiko tartean batu zitzaizkion biak etorri berriari. Neurritz gain, biak arriskutsu.

# Zingira, Makatza Txikitik

## Kritika Bertso bazkaria

Zingira Eskolan izan zen bazkaria pasa den otsailaren 2an.



Pasa den otsailaren 2an Aiako Zingira Eskolan egindako bertso bazkaria. ZINGIRA

**B**abarrunak sakramentu eta guzti. Postrea, kafea eta kopa aukeran. Bazkalondoan plato fuertea: Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi, Estitxu Fernandezek gidaritzapean.

Aurkezpenean esan zigun Estitxuk eguneko sakramenturik inportanteena zein zen. Ez txerriki eta ez aza. Hemen ez dago hippie arrarorik, ez gaude inoren kontra. *Gure seme alaben alde egin nahi dugu, eta horren lagin txiki bat herritar guztiei erakustea da gaur nahi genukeena.*

Esan eta egin; hippie artera gindoazenok erraz aurkitu genuen lekua Zingiran. Normalik hippitu edo hippirik normaldu beharrik gabe. Bertsoarako gaiak, edozeinen errealitatean erraz kokatzeko modukoak, hippiek eta normalok. Dolua, Reala eta Athletic, lan prekarioa, bola txinatarrak eta bidetak. Eta, batez ere, Makatza Txiki.

*Berogailurik ere gabeko eskola hortan kantatu zuen Unaiak Makatza txikiko aitonaaren paperean. Bazela badakit, piztu zuten auskalo, baina gutxitan bezain goxo egon ginen gu! Bejondeizuela!*

EGOITZ EIZAGIRRE

  
**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra

  
**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

# Martxoak 8an, Emakumeok\* planto

Martxoaren 8rako emakumeen greba deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak, nazioarteko deialdiarekin bat eginez **Emakumeok\* planto** lelopean. Bost ardatz izango ditu aurten deialdiak: ikasketak, enplegua, kontsumoa, zaintza eta pentsioak aurrenekoz.

TESTUA: KARKARA

ARGAZKIAK: KARKARA/ JUAN HERRERO

**2**019ko martxoaren 8a berezia izango da Euskal Herrian. Nazioarteko mugimendu feministak grebara deitu ditu mundu osoko emakumeak\*. Bost ardatz izango ditu deialdiak: ikasketak, enplegua, kontsumoa, zaintza eta pentsioak.

Gauzak honela, aurtengo martxoaren 8an greban parte hartzeko modu ugari egongo dira: lantoki eta ikasgeletan greba egitea, mobilizazioetara joatea, zaintza-lanak uztea eta amantalak balkoian zintzilikatzea, greba antolatzea eta zabaltzea, ikur moreak jartzea, ez kontsumitzea eta abar. Greba feministarekin eguneroko normaltasunarekin hautsi nahi da, hiriak, herriak eta auzoak geldiaraziz. Beraz, dena itxita egotea da helburua.



## M8A AIAN ETA ORION

**A**ian, iaz bezala, hainbat jarduera egitea aurreikusten dute Udaletik martxoak 8aren inguruan. Datozen asteotan emango dute egitarauaren inguruko informazio zabalagoa. KARKARAren web orrialdean izango duzue horren berri.

**O**rioren kasuan, herriko Xaltxerak Talde Feministak hainbat ekimen antolatu ditu herritarrekin batera martxoak 8aren inguruan.

### Otsailak 24, igandea.

Etxeko zaintzaileen egoera salatzeko ekimena izango da Zumaian. Urola Kostako mugimendu feministak herri guztietara zabaldu nahi du deialdia, M8rako motorrak berotzeko!

### Martxoak 8, ostirala.

9:00tan diana hasiko da plazan eta kalez kale bira zaratua egingo da.

19:00etan plazatik aterako da kazerolada zaratatsua.

21:00tan emakumeen afaria egingo da Balea elkartearen Aurretik eman beharko da izena Kolontxiki tabernan.



Euskal Herriko Mugimendu Feminista

**BODEGAS**  
*Gailur*  
01007 BARRIOS de EBRO  
Tel./Fax: 943 83 91 58  
www.bodegagailur.com  
Anabax Erriciza

**ZUDUGARAI**  
  
Galeriako Txakolina  
Tel. 943 83 03 80  
Fax 943 83 59 58  
bukizudugarai@euskalnet.net  
www.bukizudugarai.com

*Izaskun Estankoa*  
Tabakoa - Prentsa - Eskola materiala  
Opariak  
Astelehendik osteguna  
8:00-13:00 - 17:00-20:00  
Laguntzetan eta igandetan  
8:00 - 13:30  
Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel.: 943 831 212

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

**Katu Horia**  
OHARTARITZA KLINIKA  
ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIK  
688 88 11 28

[www.katuhoria.com](http://www.katuhoria.com)



**MENDIZABAL**  
**AROTEGIA**  
*Navarriko armariek eta egularrak*

943 831 175      Alkamen bidea  
645 708 491      Berr-Ajai etxea  
mendiarotegi.net      20810 Aia-Orio

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

  
ELIKATZEBIZI  
ORIO

eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarrera Arrantzale kaleak ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com

**PATXI OLIDEN**  
Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txorizo, kraketak...

**PATXI OLIDEN**  
Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

 [www.podologia-oinarri.com](http://www.podologia-oinarri.com)

943 575 361  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

**oinarri**  
PODLOGIA ZENTROA

  
**ORIA**  
hartz klinika

Orio Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martean.  
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erantzunean sor ditezkeen arazoak.

Aranzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

  
**GARMENDIA**  
Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak



info@egarmendia.com  
Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941  
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

*egin zaituz laguntzaille*



**Karkara**  
Aholkularitza



**Sinergia** | fisioterapia & merkuntza 943 13 05 77  
685 71 85 95

- Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zainfirtatuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosio, kirurgia osteko birgaitzeo, bizkor hezurreko arazoak, arnas gaitasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuerozioa.

- Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-o, pilates, abdominaletoa gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Ibai Ondo 1, Baita - Orio  
sinergiafisioterapia.com



## ZARAGUETA HERRI ESKOLA



## “Norbaitek egin beharko du saregileen lana”

### Ima Peiro

Saregilea

20 urterekin hasi zen Ima Peiro sareak josten. Egoera asko aldatu da orduetik, 55 saregile izatetik 4 izatera igaro baitira. Hala ere, ez du uste ofizioa desagertuko denik.

#### Noiz hasi zinen saregile lanean?

20 urterekin hasi nintzen. Administrari ikasketak bukatu eta lana aurkitu bitartean etxean laguntzen hasi nintzen, baporea baikenuen eta ama saregilea baitzen. Ofizioa asko gustatu zitzaidan, ordea, eta bertan geratu nintzen.

#### Urte osoan egiten duzue lana?

Gaur egun bai, Orion lau saregile bakarrik baikara. Ni hasi nintzenean, 55 inguru ginen eta oso lan gutxi egiten genuen. Bakoitzak bere baporean egiten zuen lana, udaberrian eta udan, batik bat.

#### Non josten duzue?

Sarea ateratzen diguten tokira joan behar izaten dugu. Neguan, gehienetan, gure sare-tokian egoten gara; moilan, aldiz, geroz eta gutxiago, bapore gehienak Getarian geratzen baitira.

#### Gogorra al da zuen lana?

Tira, postura txarretan egoten gara eta batzuetan kalean lan egiten dugu, eguraldiaren mende. Gainera, beti lanerako

deiazen zain egoten gara, baina zein lan ez da gogorra?

#### Elkartzen al zarete inguruko saregileekin?

Euskadiko saregile guztiak elkarte batean batuta gaude eta elkarri laguntzen diogu. Orioko eta Getariako saregileak, esaterako, elkarrekin aritzen gara ia beti.

#### Saregile gazterik ba al dago zuen artean?

Gazteenak 40 urte inguru ditu. Duela gutxi iragarki bat jarri genuen, jende berria hartzeko, eta bost lagun hasi dira saregile izateko ikastaroa egiten.

#### Zer uste duzu gertatuko dela lanbidearekin etorkizunean?

Gure lanak ezin du desagertu. Bapore bat baldin badago, sareak ditu eta sareak norbaitek konpondu behar ditu, bestela ezin du itsasora joan.

Arrantzaleei sarea puskatzen zaie-nean, zarrata handiegia ez baldin bada eurek konpontzen dute itsasoan bertan, gaua salbatzeko. Josi-josi deitzen diote horri.

Saregilerik ez balego ohitu beharko lukete horrela ibiltzera eta gero gelditzean eurek konpondu beharko lituzkete sareak. Baina, argi dago, norbaitek egin beharko duela saregileen lana.



Marwa Elghailani

### Graffitiak

**G**raffitiak ikur adierazgarriak dira, artistaren pentsamendua eta ideiak praktikan jartzen dituztenak.

Berez, politikak dira herri edo hiri bati bizitasuna ematen diote, oso koloretsuak izaten baitira. Gainera, politika baten kontra egiten dute normalean eta horrek hausnartzea ekartzen dizu eta graffitiaren alde edo kontra jartzea egiten dizu, eztabaida izango balitz bezala.

Zergatik jotzen da graffiti bandalismotzat? Zergatik haserretzen da jendea? Lehen esan bezala, politikaren aurkakoak direnez, ez dira denak talde berekoak izaten, hortaz, bi talde sortzen dira.

Horregatik pentsatzen dut graffitiak pintatzea ondo dagoela, baina alkateari baimena eskatu behar da, denok ados egoteko pintatzen denari buruz.

Gaur egun hainbat leku graffitiengatik dira ospetsu, oso deigarriak izaten baitira.

Orion bada graffiti bat, emakumearen askatasunaren garapena adierazten duena.

Niretzat graffiti horrek emakumeen indarra adierazten du eta askatasuna garatuz doala pixkanaka eta leku hartatik pasatzen naizen bakoitzean indarra ematen dit eta emakume naizen aldetik indartu egiten nau.

**Pentsamenduak eta ideiak praktikan jartzen dituzte.**

# Berdintasuna, 365 egunez



Pasa den urteko martxoaren 8an, emakumeen eskubideen aldeko adierazpena irakurri zen, Orioko udaletxeko balkoian. KARKARA

Datorren martxoaren 8an, ostira-lean, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Pasa den urtean bezala, Aian eta Orion elkarretaratzeak egin eta ekitaldi ugari antolatuko dira, herritarrek bat eginda, emakumeen eskubideen aldeko aldarria egiteko.

Herriaz gain, ordea, administrazio publikoek badute berdintasunaren gai honetan zeresana, eta zeregina; horren harira, *Udalaren Txokoa* atalerako, Orioko EH Bildu alderdiak ondorengo gaiaren inguruan gogoe-ta egiteko proposamena eta eskaria egin die Udalean dauden beste taldeei: *nola egin martxoaren 8tik harago, berdintasuna urte guztian Orioko Udalaren politikan eta eguneko jardunean txertatzeko?*

## Tokiko berdintasun politikak

KARKARAK Euskadiko Udalen Elkarteak webgunera jo du, Euskal Autonomi Erkidego mailan tokiko

administrazioetan, berdintasuna txertatze aldera martxan jarri dituzten ekimenak eta zerbitzuak ezagutzeko. EAE-ko hainbat Udal EUDELEk bultzatutako hainbat berdintasun programetan daude atxikituta.

Euskadiko Udal Elkartearen Berdintasun sailaren esanetan, beren xedea da *Tokiko Gobernuei lantresna berriak eskaintzea, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren neurriak erantzuteko.*

Berdintasunaren esparruan Euskadiko Tokiko Gobernuen partaidetza sustatu eta koordinatzeko, Euskadiko Udal Elkarteak hainbat zerbitzu eta programa eskaintzen ditu, hala nola:

- Euskadiko emakume hautetsiekin, udalerrri txikiekin eta herritar gazteekin ekintzak sustatzeko programa zehatzak.
- Europako programak.
- Instituzioen arteko batzordeak sor-

tzea.

- Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzen duten tokiko ekimenak babestea.
- Tokiko Gobernuak berdintasun arloan bultzatzen dituzten ekintzen gaineko aholkularitza eta sustapena.
- Indarkeria matxistaren biktimia izandako emakumei arreta emateko protokoloak.

## Orioko Udala eta berdintasuna

Orioko Udaleko Gizarte Ongizate sailak KARKARARI adierazi dionez, *etorkizunean* EUDELEK gaur egun Euskadiko Udal askotan abiatu dituen bi programetan atxikitzeko intentzioa du:

‘Berdinsarean’, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea, eta ‘Berdinbidean’, Emakume eta Gizonen Berdintasun arloan udalerrri txikiei aholkua emateko zerbitzua.



EAJ/PNV

### Berdintasunean pentsatu

2018a emakumeen urtea izan zen. Berdintasuna eragile guztien agendan kokatu zen eta emakumeek egindako aldarrikapenak agenda publikoaren lehentasun izatea lortu genuen. Emakumeen aldarrikapenak gizon guztien aldarrikapena ere izatea lortu behar dugu 2019ko martxoaren 8an. ONU Emakumeak erakundeak aldarrikatzen duen leloarekin bat egiten dugu EAJko udal taldea osatzen dugun gizon eta emakumeak. Emakumeen nazioarteko egunean BERDINTASUNEAN PENTSATU behar dugulako eta Berdintasuna bera, gizarte osatzen dugun guztien ardura delako. Erakundeetatik emakumeen ahalduzkoen aldeko lana garatu da urteetan, orain gizonezkoekin lana egin behar dugu. Gizonek erabakitze organoetan emakumei dagokien lekua utzi behar diote. Horretarako urte guztian zehar, berdintasuna lantzeko sentsibilizazio eta formazio ekimenak burutu behar ditugu.



EH Bildu

### Emakumeak planto!

*Emakumeok Planto!* lelopean dator aurten Martxoak 8 eguna. Leloak dioen bezala, aurrerapauso bat egin behar dugu gure eskubideak aldarrikatzeko. Emakumeek lanuztea egitea da greba honen helburua, nabarmen gera dadin daukagun eragina soldatapeko nahiz ordaindu gabeko lanetan. Azken urteotan gizartearen bilakaera nabarmena izan bada ere, desoreka handiak daude gaur egungo gizartean. Hainbat eremutan lan handia dugu egiteko oraindik, gizarteak berdintasuna zer den barneratu dezan. Gizarteak, eta batez ere emakumeok, berdintasunaren grina sentitzen dugu, egunerokotasunean, arlo askotan faltan bilatzen dugun berdintasun hori. Emakume eta gizonen eskubideez hitz egin beharrean, bada garaia pertsonen eskubideez hitz egiteko. Berdintasuna denon kontua da, ume, nerabe, norbanako, guraso edo aitona- amonena (azken hauek sufritu dute gehien sistema patriarkala). EH Bildutik mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea eskatzen dugu, eta emakumei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea. Gizarte aberatsago bat lortu dezagun.



Orain

### Lanpostuak sortu eta edukiekin bete

Emakumeekiko ditugun mendeetako gabeziak estaltzen ari garen garai hauetan, lege nagusiek gertutasunezko politiketan gauzatuz joan behar dira eta Udaletxean bide horiek jorratzen saiatu gara. Bada urte pasa martxan jarri zela Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun Politikako teknikariaren kontratazioa eta hilabete gutxi falta dira gure artean lanean ikusteko. 2019rako aurrekontuetan Gizarte Zerbitzuetarako administrari lanpostua sortu da. Bi teknikariak beharrezkoa zuten beste erakundeekin dituzten tramitazioetarako laguntza. Dena esateko eta egiarekin zorretan ez gelditzeko, teknikariaren lanpostuko *berdintasun politika* gehigarria eta administrariaren lanpostu berria Udal Gobernutik kanpo dauden taldeek eraginda etorri dira. Bide onetik goaz bai orokorrean eta baita herrian ere. Bi lanpostuak oriotarron onurarako sortu dira eta orain eduki egokiek betetzea dagokigu.



PSE/EE

### Gizarte Ongizate eta Berdintasun teknikaria

Pasa den martxoaren 8an gizarteak argi utzi zuen emakumeen eskubideen eta genero berdintasunaren aldeko babesa. Eskaera horrek egutegiko egun zehatz batetik harago joan behar du. Neurriak hartu behar dira urteko 365 egunetan; modu honetara emakumeen beharrak eta eskubideak ikusaraziko dira, baita jasaten duten indarkeria ere. Udalak, erakunde modura, gai honen inguruan sortzen eta antolatzen diren jarduera guztietan parte hartu eta sustatu behar ditu. Legealdi honetan Udalak Gizarte Ongizaterako eta Berdintasunerako teknikari postua sortu du. Berdintasun teknikari bat izateak gure gizartean horren garrantzitsua den berdintasuna urte guztian zehar bultzatzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren hobekuntzak egitea ahalbidetuko digu. PSE/EE-ko zinegotzi eta Udal honetako kide gisa, espero dut urte honetan hobekuntzak eta ikusgaitasun handiagoa lortzeko, martxoaren 8tik harago.

# Aurrekontuak onartuta

AIA  
265.730 euro, igerilekuetako irisgarritasuna hobetzeko

**P**asa den asteazkenean Aiako Udaltzaren 2019ko Udal Aurrekontua onartu zuen, EAJ-ren sei aldeko eta EH Bilduren aurkako lau botoekin. 2019an denera 2.518.813,71 euroko aurrekontua izango du Aiako Udalak, eta horietatik 510.622,99 euro inbertsioetara bideratuko ditu.

Aiako alkate Nekane Arrizabalagak azaldu duenez, agintaldian zehar EAJren helburu nagusia eskola berria amaitzea izan da. *Helburua bete dugu eta horrez gain gaitasuna izan dugu herrigunean eta auzoetan inbertsioak egiteko, zorrik sortu gabe.*

## Aurrekontuko inbertsio nagusiak

2019ko uda aurrekontuko 510.622,99 euro bideratuko dituzte inbertsioetara. Jarraian gastuen banaketa partidaz partida.

- Igerilekuko irisgarritasuna hobetzeko 1. fasea: 265.730 euro.
- Aurizena paseotik aurrera oinezkoen lotura: 40.000 euro.
- Eraikin publikoetan eraberritze lanak: 7.892,99 euro
- Auzoetan inbertsioak: 40.000 euro
- Auzoetako argiteria hobetzeko lanak: 20.000 euro
- Herriguneko argiteria hobetzeko lanak: 20.000 euro
- Frontoia eta dema-plaza gunea egokitzeko: 20.000 euro.
- Turismo garapena: 15.000 euro.
- Seinaleztapena: 10.000 euro.
- Bide eta azpiegiturak berritzea: 60.000 euro.
- Ikerketa lanak: 12.000 euro.

## Adostasunik ez

2019ko Udal Aurrekontu osatzeko negoziatzen aritu dira udalbatza osatzen duten bi alderdiak, baina azkenean ez dira adostasunera iritsi.

Izan ere, Aiako EH Bildutik adierazi dute baieztasunaren truke konpromiso batzuk eskatu dizkiotela alkateari, *baina guk egindako proposamen gehienak baztertuak izan dira.*

Aiako EH Bilduk estrategikotzat jotzen dituen bi gai esaterako aurrekontutik kanpo geratu direla nabarmen-



Aiako igerilekuak. KARKARA

du dute. *Euskara ikasi ahal izateko hobarien muga kentzeko eskatu genuen. Beste herrietan ez bezala, Aian lau urtetan bakarrik jaso baitzitekeen hobari hau. Gobernuak proposamen hau onartu egin du eta positiboki baloratzen dugu. Baita Andatzako babes ofizialeko etxebizitzetatik plazara igotzeko aldapara pasabide bat irekitzea ere.*

Dena dela, Aiako EH Bildurentzat oso garrantzitsuak dira garraio publikoaren eta etxe hutsen gaiak ere, eta horiek ez ditu aurrekontuan jaso udal gobernuak. *Alde batetik, autobusen ordutegian aldaketa sakon bat egiteko proposamena jaso genuen herritarrengandik, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundia ere eztabaidan sartzeko eskatu genion udal gobernuari, herritar eta erakundeen artean gaiaren inguruko elkarrizketa publikoa sortu eta denon artean ordutegien hobekuntza erabakitzeke. Proposamena ukatua izan zen.*

Bestetik, etxebizitzaren arloan, hutsik dauden etxeak merkaturatzeko politikak martxan jartzeko ere eskatu zuen Aiako EH Bilduk. *Ez dugu udal gobernuak gai horrekin batere kezkatua ikusten eta ez dago konpromisorik hartzeko prest.*

EH Bilduren eskarien aurrean, EAJk uste du, *garraio publikoan hutsunea dagoen ordutegien inguruan hausnarketa egin eta egoera hobetzeko bidea jorratu behar dela, Lurraldearekin harremanetan.* Bestalde, etxebizitza hutsen gaia estregikoa dela ere nabarmendu dute, baina epe luzera begira egin beharrekoa dela uste dute. *Gaia lantzen ari gara,* adierazi zuen Nekane Arrizabalaga alkateak.

# Aian eta Orion

## ORIO

8.074.899 euroko aurrekontuak, aho batez onartuta

**J**oan den iluntzean 2019ko Udal Aurrekontua onartu zuen Orioko Udalbatzak, ahoz batez. Azken astetan aurrekontua lantzen aritu dira udal taldeak, eta udal gobernuak aurkeztutako proposamenari emendakinak aurkeztu zizkioten EH Bilduk, Orainek eta alderdi sozialistak, batzuk bana-ka eta beste batzuk modu bateratuan. Proposamen guztiak aurrekontuan txertatu zituen udal gobernuak, eta udalbatzak aho batez onartu zuen astelehenean 2019ko Udal Aurrekontua.

2019ko Orioko Udal Aurrekontua 8.074.899 eurokoa izango da. Horietatik, 3.157.777 euro pertsonal gastuak ordaintzera bideratuko dituzte; 2.408.305 euro gastuak, ondasun arruntak eta zerbitzuak ordaintzera, eta transferentzia arruntetara 1.223.194 euro. Azkenik, 1.150.933 euro inbertsioetarako izango dira.

Bestalde, udalbatzarrean Orioko Udalaren Inbertsio Plana ere aurkeztu zuten, guztira 4.654.233 eurokoa. Plangintza jasota dauden proiektuak garatzeko, 2018ko aurrekontutik 1.244.364 euro bideratzea eta altxortegiko 1.355.769 euro erabiltzea aurreikusitako dute. Gainera, 824.994 euro diru laguntzetan jasoko ditu Orioko Udalak.

### Inbertsio Planeko partida nagusiak

- Aritzaga kaleko eta Herriko Enparantzako saneamendua berritzea eta urbanizatzea: 1.840.710 euro.
- Kaia urbanizazio hitzarmenerako: 535.063 euro.
- Argiterian inbertsioak: 504.217 euro.
- Mutiozabal saneamendua: 100.000 euro.
- Plan Orokorra: 186.103 euro.
- Aita Lertxundi kaleko urbanizazio lanak: 130.000 euro.
- Parke estalia. Aurrekontua 275.000 euro.
- Landa errepideak: 101.520 euro.
- Bidegorriak: 80.000 euro.
- San Martin argiteria: 70.000 euro.
- Kultur Etxearen atzealdea eta bide publikoak: 37.145 euro.
- Orioko Herri Ikastola: 147.945 euro.
- Haurtzaindegiko teilatu-hodiak eta teilatuaren hegala-zen luzapena: 29.900 euro.
- Zaraguetako teilatu-hodiak eta argiteria. 20.000 euro.



Plazaren saneamendua eta urbanizatzea egingo da. KARKARA

-Liburutegiko egokitzapen obra eta ekipamendua, 25.000 euro.

- Arraunetxeko pantalana: 20.000 euro.

- Mendibeltz zelaiko belar artifiziala, 228.000 euro.

-Kanpineko gasoil depositoa ordezkatu eta gas naturala sartu: 50.000 euro.

### Hondartzako bi lursail

Bestalde, Orioko Udalak hondartza eremuan jabegoen dituen bi lursail 2019an salgai jartzeko konpromisoa ere hartu zuten udal taldeek. Partzela bakoitzean 18 etxebizitzak libre egiteko aukera izango da, eta salerosketa horretatik lortutako dirua altxortegira bideratuko dute.

### Udal taldeak 'gustura' aurrekontuarekin

2019ko Udal Aurrekontuaren bozketaren ondoren, udal taldeek balorazioa egin zuten eta alderi bakoitzak bere ekarpenak izan zituen hizpide.

EH Bilduk esaterako, nabarmendu zuen *pozgarria* dela aurrekontuetan alderdi guztien proposamenak jasotzea.

Orain Herri Plataformak ere azpimarratu zuen udal taldeak *jator* portatu direla aurrekontua osatzerako garaian, eta Jose Angel Iparragirrek udalbatza zoriondu zuen egindako lanagatik.

PSE-EEko Ana Priedek ere bat egin zuen gainontzeko udal taldeen iritziarekin.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Lan eskaintza**

• Aiako Kanua jatetxea sukaldari laguntzaile eta zerbitzari bila dabil, biak esperientziarekin. Tf: 637992924

**Alokairua**

• Logela alokagai, Orion Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550

• Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385

**Lan bila**

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 661133295

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231

• Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. Espe-

rientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tf: 632582365

• LH-ko gradua egiten ari den neska oriotarra, LH-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein irakasgai. EGA (euskara) eta FIRST (ingelese) agiriak ditut. Rut Atxega. Tf: 678083496

• Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642696038

**ITSASOA**

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	0:48 eta 13:30	06:57 eta 19:22	☾
02	01:55 eta 14:28	8:02 eta 20:18	☾
03	02:45 eta 15:11	8:50 eta 21:02	☾
04	03:25 eta 15:47	9:29 eta 21:39	☾
05	03:59 eta 16:19	10:03 eta 22:13	☾
06	04:31 eta 16:49	10:35 eta 22:45	☾
07	5:01 eta 17:18	11:06 eta 23:16	☾
08	5:31 eta 18:16	11:37 eta 23:47	☾
09	6:00 eta 21:11	12:08 eta ____	☾
10	6:30 eta 18:47	0:19 eta 12:40	☾
11	7:02 eta 19:20	0:52 eta 13:14	☾
12	7:38 eta 19:59	1:29 eta 13:52	☾
13	8:23 eta 20:48	2:13 eta 14:40	☾
14	9:22 eta 21:57	3:09 eta 15:41	☾
15	10:44 eta 23:26	4:23 eta 17:00	☾
16	12:18 eta ____	5:49 eta 18:23	☾
17	0:53 eta 13:36	7:08 eta 19:35	☾
18	2:01 eta 14:35	8:13 eta 20:33	☾
19	2:56 eta 15:26	9:06 eta 21:24	☾
20	3:45 eta 16:12	9:54 eta 22:10	☾
21	4:30 eta 16:55	10:38 eta 22:54	☾
22	5:14 eta 17:36	11:21 eta 23:37	☾
23	5:56 eta 18:17	12:03 eta ____	☾
24	6:38 eta 18:59	0:20 eta 12:44	☾
25	7:21 eta 19:41	1:03 eta 13:26	☾
26	8:06 eta 20:27	1:48 eta 14:11	☾
27	8:57 eta 21:23	2:38 eta 15:02	☾
28	10:04 eta 22:37	3:38 eta 16:05	☾
29	11:32 eta ____	4:55 eta 17:25	☾
30	0:06 eta 12:58	06:20 eta 18:46	☾
31	0:21 eta 14:59	08:30 eta 20:48	☾

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**MARTXOA**

- 1ean, Lasa.
- 2an eta 3an, Etxeberria.
- 4an, Esparza.
- 5ean, Zulaika.
- 6an, Gaminde.
- 7an, Iturria.
- 8an, Etxeberria.
- 9an eta 10ean, Gallo.
- 11an, Gaminde.
- 12an, Larrañaga.
- 13an, Zulaika.
- 14an, Iriarte.
- 15ean, Gallo.
- 16an eta 17an, Redondo.
- 18an, Lasa.
- 19an, Iriarte.
- 20an, Iturria.
- 21ean, Gallo.
- 22an, Redondo.
- 23an eta 24an, Zulaika.
- 25etik 29ra, Lasa.
- 30ean eta 31an, Iriarte

**Etxeberria:** Gipuzkoa kalea,17, 943 83 23 98 Zarautz

**Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6 943 50 47 83 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi Kalea, 5-F 943 13 29 83 Zarautz

**Iturria:** Kale Nagusia, 12, 943 83 29 70 Zarautz

**Redondo:** Urdaneta, 8, 943 13 38 14 Zarautz

**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16, 943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko plaza, 943 83 09 36 Orrio

**Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68, 943 13 29 83 Zarautz

**Gallo:** Zigordia Kalea, 17, 943 13 40 19 Zarautz

**Zulaika:** Bizkaia Kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

# Orio

## Antzerkia

• Otsailaren 22an, ostiralean, 'Bertan kasu egin, edo banoa' antzezlan, 22:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian.

## Dantza

• Otsailaren 23an, larunbatean, Musika Eskolako haurren dantza ekitaldia, Karela Kiroldegian.

## Bertso afaria

• Bertso afaria Aldapa Elkartean, otsailaren 23an, larunbata, 20:30ean hasita. Unai Agirre eta Agin Laburu bertsolariak arituko dira bertsotan.

## Inauteriak

• Egitaraua, eskubialdean

## Ikastaroa

• Martxoaren 2an, EIVIDA, Intuizio eta energia eskola, 16:00etan Kultur Etxean, doan.

## Musika

• Martxoaren 15ean, ostiralean, Buffalo taldearen kontzertua, 22:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian.

## Txurrunuski

• Martxoaren 22tik 24ra, asteburu pasa Txurruka aterpetxean LH3tik LH6ra bitarteko umeentzat.

## Bertsio gaua

• Martxoaren 29an, Bertsio gaua Etxeluze Gaztetxean.

## Bingoa

• Asteazkenero bingoa Kultur Etxean, 16:30etik aurrera.

# Aia

## Podologoa

• Otsailaren 23an, podologoaren bisita.

## Mendi lasterketa

• Otsailaren 24an, Aiako VIII. Mendi Lasterketa. Irteera herriko plazatik, 10:30ean.

# INAUTERI FESTA

# 2019

**MARTXOAK 2**  
**LARUNBATA**

**12:00** Musika-eskolako **trikitilariak** kalez kale

**14:00** **Herri-bazkaria** pilotalekuan.  
**Helduen menua:** Entsalada, iberikoak, Lumagorri oilaskoa, txerri-saiheskia, Ezeiza pastel-surtidoa, edaria eta kafea **18€**  
**Umeen menua:** krocketak, iberikoak, Lumagorri oilaskoa, izozkia eta edariak **12€**  
Sarrerak kultur etxean salgai

**17:00** **Inauteriko kalejira** Burrumba elektrotxarangarekin Bikamiotatik aterata (euria eginez gero, festa Herriko Plazan egingo da, kalejirarik gabe)

**19:30** DJa Herriko Plazan

Euskaraz  
100 ORIO



**Gale Bask S.L.**

**BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK**

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - beheka (20810 Orio)  
Tel./Fax: 943 134 717  
Mugikorra: 638 610 343 - galebask@hotmail.com

RESTAURANT H

CUISINE FRANÇAISE

HOTEL TOKI-ALAI

BAD RESTAURANT

